

# Txiki!tto

2015eko urtarrila

149 zbk.

## Teknologia berriak ezagutzen



# Taxis Teak



## Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte  
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar  
Tel: 943 206776.

## Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Maider Aranberri,  
Ana Aizpurua eta Eibarko  
ikastetxeetako ordezkariak.

## Administrazioa

Marisol Uriarte.

## Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Maider Aranberri, Ainhoa  
Luz eta Ana Aizpurua.

## Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa.

## Copyright-a

Txikitto!

## Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak  
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak  
diruz lagundutako argitalpena

Maisuak galdetzen dio  
Jaimitori:  
- Zenbat da bi eta bi?  
- Ez dakit, auskalo! Ez badidazu datu  
gehiago ematen...  
Jule Aldai eta Norah Garcia



- Aita, aita, ikusi al dezaket  
telebista?  
- Bai, baina piztu ez.  
Celia Rubio eta Adrian Santos



- Zer da umeak  
egiten duen lehen gauza  
uretara jaustean?  
- Busti.  
Irati Cid, June Simon eta  
Ander Rosales



- Ea, Gaizka, ba ote  
dakizkizu bi izenorde?  
- Nork, nik?  
- Bikain, mutiko!  
Noa Dávila eta  
Ane Alorza

- Aizu, zer ordu da?  
- Hamabiak  
- Oi, zein berandu!  
- Lehenago galdetu beharko  
zenidake!  
Arrate Leyaristi eta  
Danel Muñoz



KULTURA SAILA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Lagun batek beste bati:

- Zergatik edaten duk hainbeste?
- Medikua edatea debekatu didala ahazteko.

Iker Horrillo eta Gorka Vila



- Zerbitzari! Ekar ezazu beste zopa bat, honek euli bat dauka-eta.

- Lasai, gizona, plateraren ertzean dagoen armiarmak laster jango du-eta.

Aiko Baglietto, Aitor Larramendi eta Iñaki Iglesias



- Ama, ama! Limoiek ba al dute lumarik?
- Nola ba? Ez, seme, ez!
- Ai ene, orduan kanarioari atera diot zukua!

Unax San Julian eta Paul Goiti



- Ama, ama, termometroa jaitsi da.

- Zenbat?

- Leihotik 3 pisu.

Bernart, Telmo, Alex eta Beñat

**JAJAJA**  
**JAJAJA**



## Txikitto! eraberrituta dator

Urte berriarekin batera, eta ikusten duzuen moduan, Txikitto! aldizkaria ere berri egin dugu. A ze aldea, ezta? Zuri-beltzetik koloretara pasatu gara, eta ziur gaude zuen gustokoagoa dela orain, baietz? Baina ez hori bakarrik: hemendik aurrera zuetako ikasle bakoitzak ale bat eramango du etxera! Aldaketa horiekin espero dugu zuek ere gu bezain pozik egotea. Eta ez ahaztu, zuen lan eta proposamenen zain gaudela. Ideia berriak badituzue, esaiguzue lasai, **Txikitto! denon artean egin behar dugu-eta!**

# Denborapasak

## Hizki-zopa

Egunaldia

A	Z	T	I	A	K	E	O	A	T
U	A	A	X	L	T	E	U	X	U
S	R	E	O	A	J	C	I	X	Z
T	R	Z	L	I	K	N	T	M	T
I	U	E	U	N	G	O	R	F	I
E	L	H	D	O	R	Z	U	R	K
D	E	K	R	T	A	O	M	E	Z
O	M	R	M	U	B	A	O	S	U
H	A	U	D	T	O	I	K	G	
S	A	R	R	A	O	I	A	O	E

Arroaia Trumoaia  
 Eguzkiluz Tringarra  
 Ekaintza  
 Elwora  
 Fresko  
 hezea  
 hodeitsu  
 Laimoluta

**MAIALEN GUELLAR ROJAS**  
**MAIDER CONCHAS**

## Hizki-zopa

S. D. EIBAR

LILLO	X	N	R	W	A	D	E	N	O	B	W	M	S	C	A	E	
	X	T	V	N	S	R	D	N	W	V	U	W	X	Z	Z	S	W
CAPA	V	C	A	P	A	G	A	F	V	R	N	A	I	M	U	X	M
	K	I	S	U	W	S	N	T	S	V	E	S	K	A	R	R	U
LEKIC	E	X	R	N	Y	U	Z	S	I	S	T	A	D	N	M	X	D
	L	E	C	I	K	S	G	Z	X	R	B	F	G	U	S	L	L
ABRAHAM	V	D	N	N	V	L	F	P	U	T	T	F	D	T	S	G	
	L	A	N	S	A	L	F	R	X	R	T	N	C	E	W	U	R
ERRASTI	L	N	C	G	U	N	E	A	T	S	D	I	R	L	U	V	W
	E	V	A	U	R	T	N	N	U	D	V	U	U	M	Z	E	K
IRURETA	R	Z	A	M	A	Y	O	C	E	K	N	W	H	O	U	R	I
BOVEDA	I	Y	A	H	X	C	B	D	S	M	Y	Z	R	S	F	S	
	C	X	F	H	N	Y	D	O	X	N	W	H	R	A	X	S	D
	I	U	R	A	K	Z	B	V	A	X	L	I	L	O	E	C	
	X	N	V	R	C	Z	B	M	S	Z	W	Y	V	W	N	E	
	Y	Z	A	B	C	D	I	U	N	M	R	Z	I	C	R	M	U
	E	R	R	A	S	T	Z	A	S	S	K	X	Y	Y	X	Z	M

MANUDEL MORAL

**UNAI REFOYO**

# Lehiaketa



## AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea **EIDER AGIRRE** izan da. Argazkian duzue saria jasotzen. Zorionak!



## AURKITU 7 DESBERDINTASUNAK





**BIDALI ERANTZUNAK OTSAILAK 4 BAINO LEHEN.  
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA. Urkizu 11. Eibar.**

Izen-abizena .....

Adina .....Tel.....

# Denborapasak

## Aurkitu bidea



MADDITERAN

## Hizki-zopa

M	A	R	R	U	B	I	A	K
A	Z	E	B	O	S	A	J	E
H	I	M	A	H	A	T	S	A
A	X	E	N	T	G	X	V	O
M	A	H	A	I	A	K	O	N
E	L	P	N	A	R	I	M	U
L	O	L	A	H	R	N	T	P
O	G	A	Z	T	A	I	N	A
I	S	A	B	E	L	I	T	E
A	I	M	O	N	A	S	K	B

FRUITUAK
MAHATSA
MEZOIA
SAGARRA
MARRUBIA
GAZTAINA
BANANA

IRATI ARIZMENDIARRIETA

## Teknologia berriak modu erakargarrian ezagutzen

### EibarLAB's-ek tailer arrakastatsuak eskaini ditu gaztetxoen artean

Teknologia berriek guztiz hartu dute gure gizartea. Edozein aldetara begiratuta ere, teknologiaz inguraturik gaude; badakigu teknologia berrien munduak aldaketak jasaten dituela une oro, eta prest egon behar gara edozein aldaketarako.

EibarLAB's-en helburu nagusia teknologia berrien ezagutza bultzatzea da. Abenduaren 20an udaletxeko patioan tailer batzuk antolatu zituzten eta bertara gaztetxo asko hurbildu ziren. **Minirobotak**, **3 D inpresoran** egindako piezekin osatutako gabonetako apaingarriak, **oihalak eta argiak nahastatuta egindako bolak** eta bestelako bitxikeriak egin zituzten.

EibarLAB's taldekoen iritziz, oso garrantzitsua da umeei eta gaztetxoei teknologia berriekin praktikatzeko aukera ematea. Teknologia berriak eskuartean izateko aukera ematen zaienean, umeei eta gazteek pila bat ikasten dute. Gainera, guzti hau **modu dibertigarrian** egiten baldin bada, ikasten jarraitzeko gogoia piztu egiten da.



## Garapen teknologikoaren mugarri historikoak

**Harrizko tresnak eta armak:** Lehen hominidoek sortu zituzten duela 1.000.000 urte baino gehiago. Armen bidez, animalia basatien ehiza hobetu ahal izan zen. Tresnek animalien zatikatzea eta larru, hezur eta zuraren lanketa erraztu zituzten, gizakien bizimoduan lehen aldaketa esanguratsuak eraginez.

**Sua sortzea:** Sua lehenagotik ere erabiltzen bazen ere, gizakiek sua beraiek sortzearen lehen aztarna duela 200.000 urtekoa da.

**Saskigintza:** Buztingintza baino lehenagokoa dela uste da. Saskiak janariak eta objektu txikiak garraiatzeko lehen ontziak izan ziren.

**Buztingintza:** K. a. 8000. urtearen inguruan sortu zen (Neolitoaren hasieran) Europan. Buztingileen labeak ondoren sortuko ziren metal-galdaketarako oinarria izan ziren.

**Zerealen laborantza:** K. a. 8500. urtearen inguruan sortu zen. Nekazaritzak nomadismoa murriztu zuen eta lehen hirien sorrera eragin zuen. Hirietan lanaren gizarte-banaketa sortu zen eta teknologien ugaritzea agertu zen.

**Kobrearen metalurgia:** K. a. 7000. urtearen inguruan gaur egun Turkia den eskualdean.

**Oihalgintza:** Animalien zein landareen zuntzak erabiliz egindako lehen oihalak K. a. 5000. urtean sortu ziren Anatolian, Mediterraneoko Levanten eta Egipton.

**Gurpildun orga:** Mota honetako tramankulu baten lehen irudikapena K. a. 3500. urtearen ingurukoa da, eta Kaukasoan sortu zen.



<b>IZENA</b>	Ana
<b>ABIZENA</b>	Urrutia
<b>OGIBIDEA</b>	Telebistako aurkezlea
<b>JAIOTERRIA</b>	Bilbo
<b>JAIOTEGUNA</b>	abuztuak 30

**Itsasoa ala mendia?**  
Itsasoa, baina mendi hurbil.

**Gozoa ala gazia?** Gozoa.

**Uda ala negua?** Udazkena.

**Jatekorik gustokoena?**  
Begihandis bere tintan.

**Zein liburu ari zara irakurtzen?**  
Baztaneko trilogia, hirugarrena.

**Umetan ikasgairik gustokoena?**  
Gimnasia.

**Eta gutxien gustatzen zitzaizuna?**  
Matematika.

**Kolorerik gustokoena?** Morea.

**Gustukoen dituzun kirolak?** Surfa.

**Animaliarik baduzu etxean?**  
Bai, "Kirra", txakurra, emea.

**Txistekak kontatu ala entzun?** Kontatu.

**Birziklatzen duzu?** Bai, noski baietz.

**Telebistako saio bat?** Eguraldia.

**Pelikularik gustokoena?**  
Asko... azkena: "Birdman".

**Egun perfektua:** Surfa hasteko goiz goiz, hamaiketako Jatako puntan eta arratsaldean San Juan de Gaztelugatxen, Ilunabarra ikusteko.

**Nola dago mundua?**  
Atzeratua.

**Zerk haserretzen zaitu?**  
Indarkeria matxistak.

**Zerk poztu?** Ia denak.

**Oporretarako leku bat.**  
Indonesia.

**Euskara osasuntsu dago?**  
Ez, gaixorik leku askotan.

**Zer egin daiteke euskera bultzatzeko?**  
Gustuz hartu.

**Opariak egin ala jaso?** Egin.

**Gogoan duzun unerik pozgarriena?**  
Lehenengo "tubo"-a uretan, erditzeak, Gorbeia eta Aizkorri puntan... asko dira.

**Abesti gustokoena?**  
Euskalduna (berria, je, je) naiz eta harro nago! Fermin Muguruza.

# AAA URRUTIA

Bilbon jaio zen, 1972ko abuztuaren 30ean. Kazetaritzan lizentziatu zen Nafarroako Unibertsitatean, eta 1999ko udaran ailegatu zen EITB-ra. Orduz geroztik aurkezten du Eguraldia saioa ETB-2n. Horrez gainera, telebistako hainbat saio ere aurkeztu ditu, hala nola "20 segundos" eta "Surf in Euskadi".





**SAN ANDRES** ikastetxean, urte berri hau, euskera bultzatzeko ekintzekin hasi dugu, hemen bi adibide: 6. mailakoek gosari osasungarrian prestatu dituzte egunari hasiera ona emateko. Oso gozoa zegoen dena!

Eta 2. mailakoek, berriz, txotxongilo-saioak prestatu dituzte beste ikasleei erakusteko. Oso ondo pasatu dute!

**ITURBURUN** hasi berri gaude 2. hiruhilabeteko programa eta zeregin berriekin. Hala ere, argazkiak berrikusten jardun dugunean Olentzeroren bisita gogoratzeko aukera izan dugu. Begira ezazu zein ederto egin zitzaion harrera Olentzerori, menditik behera jaisten ari zela, eta ikasle guztiak berari ongi-etorria ematen.



Bestalde, denok dakigu zein ondo pasatzen duten ume eta gazteek antzerkia ikusten. Ba oraindik hobeto pasatzen dute antzerkiko partaide izaten. Argazkian dituzue Goi-Zikloko neska-mutil talde bi prest ingeleseko antzerkiak egiteko.



Urte berri on denoi **Arrateko Andra Mari** ikastetxetik! Atzean gelditu dira oporrak eta lanean murgilduta gaude jada.

Olentzeroren bisitarekin amaitu genuen urtea, eta eskolan hasi eta urtarrilaren 14an Odol Emaileen tailerra izan dute LHko 5. mailako ikasleek. Urtarrilaren 23an, 3. ziklokoak, antzerki bat ikustera joan ziren San Andres eskolara eta urtarrilaren 26an, 6. mailakoak, Itziora joan ziren bisitan ikastetxea ezagutzera. Urtarrilaren 27an, 3. ziklokoek, irteera pedagogikoa egin zuten Zestoa-Ekaingo kobetara.



**URKIZU** ikastetxeko 3. zikloko ikasleek Herri Kirolak izan zituzten oportetatik bueltan. 2. eta 3. ziklokoak zinemara joan ziren "Lepel" filma ikustera; urtarrilaren 21ean 2. zikloko ikasleen txanda izan zen eta eurek izan zituzten Herri Kirolak; urtarrilaren 23an, 3. ziklokoak, San Andres ikastetxera joan ziren antzerki-saio bat ikustera. Urtarrilaren 30ean, Encarni Genua etorriko zaigu ikastetxera Haur Hezkuntzako haurrei "Galtzagorriak" txotxongilo-saioa aurkeztera.

Abenduaren 1ean, **La Salleko** 4 urtekoak Olentzeroren etxera joan ziren Euskal mitologia ezagutzera eta Olentzerori opariak eskatzera. Nahiz eta eguraldi eskasa izan, zoragarri ibili ziren. 19an, Olentzero ikastetxera etorri zitzaigun eta gabonetako jaialdia ospatu genuen.

Urtarrilaren 27tik 30era, bakearen astea izango dugu geletan bakearen alde hainbat ekintza landuz eta ostiral arratsaldean ospakizuna egingo dugu globoak eta usoak askatuz.



# etXeko artista

## Aratosteetarako betaurrekoak

### Materiala:

- Betaurrekoen plantilla
- Artaziak
- Margoak, errotuladorak, tenperak, zerak, (bakoitzak nahi duena)
- Errotuladore beltza
- Kartulina edo kartoia

- 1.- Aratosteetarako betaurreko dibertigarriak egiten hasteko, inprimatu gustoko duzun marrazki bat.
- 2.- Marrazkia plantilla bezala erabili kartulina edo kartoi baten gainean.
- 3.- Guztia moztu eta koloreatu.



- 4.- Betaurrekoen "patillak" marraztu kartulina edo kartoiaren gainean (marrazkia ikusi).
- 5.- Patillak moztu, tolestu lerro etenetik eta betaurrekoen atzekaldean pegatu.

Ti-ta!

## Orri-markatzaileak

Kartulinarekin laukizuzen bat egin. Erdian sudur handi-handi bat moztu. Sudur honek liburuaren orriak eusteko balioko du. Begitxoekin eta iletxoekin dekoratu.





## FRUTA-KOKTELA

### OSAGAIK

- ✓ Nahi duzun fruta aukeratu
- ✓ Azukrea edo siropea
- ✓ Esnea, yogurta edo izozkia
- ✓ Txokolatezko zatiak, nata
- ✓ Koloretako pajitak

### PAUSOAK

- 1.- Fruta soilik erabili dezakezu, edo bestela, esneki batekin batu (esnea, yogurta edo izozkia).
- 2.- Azukrea edo siropea gehitu ahal diozu, baina hobeto gozoa den fruta bat erabiltzen baduzu. Hobe da yogurta edo esnea botatzea izozkia baino.
- 3.- Fruta mingotzak erabiltzen badituzu, laranja, limoia edo pomeloa esate baterako, hobe da yogurta erabiltzea esnea baino. Banana, madaria, melokotoia, marrubiak edo sagarrak bezalako frutak esnearekin batu ahal dira arazorik gabe.
- 4.- Aurkezpena zaindu: edalontzi altuak erabili (plastikozkoak txikientzako), azukrea jarri edalontziaren goiko aldean, txokolatezko zatiak edo nata... Bizpahiru kolorezko pajitak ere jarri ditzakezu (badaude bueltak ematen dituztenak edo pertsonaia famatuak dituztenak)...



# URTARRILA ETA OTSAILLEKO agenda

## URTARRILAK 31

### ZAPATUKO IPUINA

19:00etan umeen liburutegian Eñaut Gorbea ipuin-kontalariaren eskutik "Aldrebeskeriak eta beste zenbait kontu".

## OTSAILAK 1ERA ARTE

**Eibar Kirol Elkarteko** 75.urteurreneko erakusketa Portalean.

## OTSAILAK 6

### JUAN BAUTISTA MUSIKA ESKOLAKO PIANO ETA KITARRA JAIALDIA

Coliseon 20:30etan.

## OTSAILAK 7

### EÑAUT ELORRIETA-ren kontzertua.

Coliseon 20:30etan.

## OTSAILAK 12

### EGUEN ZURI

15:30etan ikastetxeen kalejirak herriko kaleetan zehar.

17:00etan Dantzaldia LISKER taldearen eskutik eta eskulan-tailerrak ASTIXAREN eskutik.

## OTSAILAK 13

### KALDEREROEN KALEJIRA ETA ARATOSTEETAKO PREGOIA

Urkizuko parketik 20:00etan irtengo dira Untzagaruntz. Behin Untzagara heldutakoan Aratosteetako pregoia botako da.

## OTSAILAK 15

### ARATOSTEETAKO PLAY-BACKA eta DJ ARNO

17:00etan Untzagako Karpan LH 5 eta 6 mailako umei zuzenduta. Parte hartzeko oinarriak ikastetxeetan.

18:30etan umeentzako diskoteka DJ Arnorekin, Untzagan (karpan).

## OTSAILAK 17

### ARATOSTE MARTITZENA

17:00etan umeendako jolasak, Astixaren eskutik Untzagan.

18:30etan sardinaren entieru txikia eta umeendako diskoteka DJ Arnoren eskutik.

## OTSAILAK 21

### "NUEVA ORLEANSEKO ZIRANO" ANTZEZLANA

17:00etan Coliseon "Nueva Orleanseko Zirano" antzezlanaren VAIVEN taldearen eskutik.

### ARIES

Olentzerok oparitutako prakan zuloa egin duzu. Trankil esan... konpontzeko aukera dago eta!

### TAURUS

Jantzi txamarra urdin polit hori!! Zorte ona emango dizu eta.

### GEMINIS

Eguneroko denbora antola ezazu: lanak, jolasa... Luzatu gihar horiek, motz geratuko zara, bestela!

### CANCER

Pixkanaka-pixkanaka urrutirago iritsiko zara. Oraingo honetan astea patxadaz hartzea komeni zaizu.

### LEO

Non dituzu lehengo urteko margoak? Burua eskerrak loturik daukazula!!!

### VIRGO

Erropa egokia eraman, hotz asko egiten ari da eta. Bestelan badakizu... zure laguna ez den sukarra etorriko da bisitan.

### LIBRA

Zorte ona izan nahi baduzu laranja kolorea duen zeozer eraman zurekin; esate baterako, mandarina bat.

### SCORPIUS

Olentzerok ez dizu ekarri eskatutakoa? Beharbada ez zara hain ongi portatu, ezta?

### SAGITARIUS

Zorteko zabilta. Begiak zabal-zabalik badituzu... dirua topatuko duzu!

### CAPRICORNIUS

Nahi ta ezin... laster amesten duzun hori lortuko duzu!

### ACUARIUS

Zure kolorea gorria da. Kolore gorria duten fruitak jaten badituzu zorte ona seguru!!


### PISCIS

Igerian ez dakizula? Ba kiroldegian laster ikasiko duzu! Animo eta uretara!



### **BASAJAUNEN OPORRAK**

Basajaun oporretan dagoen bitartean, Axel hontza arduratuko da basoa zaintzeaz. Baina animaliek ez diote jaramonik egiten eta basoan anabasa gailentzen da. Gainera, negua dator eta ez dira prestatzen ari.



### **AZKENEKO TXANTXANA**

Mundua zeruko hegazki ttikiek gobernatzen zuten garaikoa duzue historia hau. Aspaldikoa. Oso aspaldikoa. Aspaldi-aspaldikoa. Udazkenik eta udarik ez zen garaikoa. Soilik udaberria eta negua zirenekoa....



### **NOELIAREN ARKA**

Tigre batek dentista jan du. Beste tigre bati marrak ezabatu zaizkio. Sugeak barre egiten dio panterari. Lehoiak Tarzan barregarri utzi nahi du. Hartza haserre dago. Gorila Malabarista haserreago. Ostruka urdinari arrautza lapurtu nahi diote...



### **JIRAN-BIRAN**

Poza poza po zapo, goma go mago: hitzaren magia... liburu honetan dago.



### **NUR ETA DENBORAREN LIBURUA**

Uda hasi eta euria ari du atertu gabe. Oporrak dira, jolasteko garaia, baina, eguraldi honekin, Nurrek eta haren lagunek ez dakite zer egin jostatzeko. Amamak esanda, liburu bat hartzen du apaletik, Denboraren liburua...



### **EZ GARA ELKARREKIN ZAHARTUKO**

Hamabi urte bete berri ditut. Ekuazioa sinplea da: badira bost urte zazpi urte nituela. Honezkero handia naizela esan daiteke. Ez erabat heldua, egia da, baina zer egiten dudan jakiteko bezain handia bai...



## TXINPANTZEAK, BAI INDARTSUAK!

Gizakiak baino lau aldiz indartsuagoak dira.



## MODERNOTIK GUTXI DU TATUAJEAK!

Hain da zaharra, momien gorputzetan ere aurkitu dituztela tatuajeak.



## KATUAK

Katu bati bibotea kenduz gero, oreka galduko du eta jauzi egingo da.



## IZARREN KOLOREA

Izarra kolore batekoa edo bestekoa izango da, izarraren gainazaleko tenperaturaren arabera. Izarrak beroenak urdinxkak dira; hotzenak, berriez, gorrixkak.



## MUNDUKO TOKIRIK HOTZENA

Lurrean inoiz neurtutako tenperaturarik baxuena - 88,3 °C da. Neurketa hori 1960ko abuztuaren 24an egin zen Hego poloan, eta, hori dela eta esaten da Antartika dela lurreko lekurik hotzena.

✓ Gorputzeko giharrik indartsuena mingaina da.



## MUNDUKO LORERIK HANDIENA

Rafflesia Lorearen tamaina benetan izugarria da: metro bat zabal da, eta 7 kilogramoko pisua du.

✓ Eguzkiak argia emateari utziko balio... lurrean 8 minututara konturatuko ginateke.

✓ Koala bere bizitza osoa urik edan gabe egon liteke.



## THOMAS ALVA EDISON

Bonbila elektrikoaren asmatzaileak... beldurra zion iluntasunari.

✓ Sudurrak bekokiaren luzera berdina dauka.

✓ Bulgariarrek bai esateko burua ezker-eskuin mugitzen dute; ezetz esateko, aldiz, burua goitik behera mugitzen dute... gure kontrakoa.

✓ Ba ahal zenekien eltxoek haginak dituztela? Ba... bai!

## BEDERATZI!!!

Aukeratu bederatziren multiploa den edozein zenbaki.

Adibidez: 18.

Batu zenbaki horren

digituak: 1+ 8

Zein da emaitza? 9.

Bitxia, ezta?

Bederatziren multiploa den edozein zenbaki aukeratu eta haren digituak batuz gero, emaitza beti da 9.



## KEPAREN TXAKURRA

**B**azen behin Kepa izeneko mutiko bat, Kepak 7 urte zituen eta Zarautzen bizi zen.

Kepak Urko izeneko anai bat zuen, 5 urtekoa. Urko eta Kepa oso mutil onak ziren.

Keparen aita hil egin zen eta amarekin bizi ziren.

Lur izeneko txakur bat zuten, txakur hori Kepa eta Urkoren oso lagun ona zen.

Oso ondo jaten zuen eta ez zuen asko zikintzen.

Egun batean, Lur desagertu egin zen eta Urkok amari galdetu zion:

-Ama non dago Lur?

Amak ez zekiela esan zion, orduan bi mutilak negarrez hasi ziren, ama lasaitzen saiatu zen baina ez zuen lortu.

Hurrengo goizean poliziarengana joan ziren eta txakurra bilatzeko eskatu zieten. Gero kartelak jarri zituzten herriko toki guztietan eta jendeari galdetu zioten, baina inork ez zuen ikusi.

Orduan, etxera itzuli ziren, eta umeak etxeko lanak egin ondoren, Kepak Urkori esan zion:

-Bihar joango gara Lur bilatzera, prestatu motxila.

-Baina ezin gara joan amari ezer esan gabe.

-Zu trankil, gutun bat jarriko diogu ohe gainean. Ulertuta?

-Bai.

-Bale, orain lotara.

Hurrengo egunean Kepa eta Urko Lurren bila irten ziren kalera. Amak nota ikustean poliziarri deitu zion, poliziak ordu batean aurkitu zituen eta amarengana eramane zitu.

Ama oso pozik jarri zen eta logelara joan ziren hitz egitera. Amak beraiekin hitz egin zuen eta Lur gabe bizitza berri bat hasi behar zutela esan zien.

Urte horretako abenduaren 24an, Lur etxera bueltatu zen eta umeak oso pozik jarri ziren, eta Kepak esan zion amari:

-Gabonen magia izan da.

Amak baietz esan zuen eta denok oso pozik bizi izan ziren.

Ala bazan ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Untzagako plazan.

**Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko. MEREZI DU...**



Markel Madrigal ( 6. Maila)

# MIEL OTXIN

Lantz

